




Bizkaia denontzat



2023-2027KO AGINTALDI-PLANA



AGINTALDI-PLANAREN AURKEZPENA	3
ORAIN DAUKAGUN BIZKAIA ETA LORTU NAHI DUGUN BIZKAIA	4
2023-2027KO AGINTALDIRAKO LEHENTASUNEZKO JARDUERAK	14
PLANAREN LEHENTASUNEZKO JARDUERAK GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEI (GJH) EGITEN DIETEN EKARPENA	53
JARRAIPENA EGITEKO, EBALUATZEKO ETA HERRITARREI KONTUAK EMATEKO EREDUA	64





AGINTALDI-PLANAREN AURKEZPENA

Agintaldi-plan honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak datozen lau urteetan garatuko dituen jarduketak jasotzen dira. Horien bidez, Bizkaiko herritarrekin dugun konpromisoari erantzuna eman nahi diegu, lan egin nahi dugu pertsona guztiok senti dezagun lurralde hau leku ona dela bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko. Askotariko gizartea daukagu, plurala, errealitate eta helburu desberdinak dituzten pertsonak osatua, baina elkarrekin aurrera egiten duena.

Azken hamarkadetan, Foru Aldundiak funtsezko zeregina izan du Bizkaia gaur egun den gizarte aurreratua eta bizi-kalitate handikoa bihurtzeko prozesuan. Beti elkarlanean jardun dugu beste erakunde publiko eta pribatu batzuekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin, zeinek gizarte honek ekarpenak egiteko duen gogoia bideratzen duten. Lankidetzazko sistema horrek, ahaleginak elkartuz eta koordinatuz, gure nortasun-ikurra izaten jarraituko du aurrerantzean ere, gure gizarteak erronka garrantzitsuak dituelako: besteak beste, krisi demografikoa, krisi klimatikoa eta beste errealitate baterako trantsizioa, non arlo digitalak espazio handia hartu duen gure bizitzako eremu guztietan. Errealitate horiek desberdintasunak sortzeko edo areagotzeko mehatxua dakarte, batez ere kolektibo ahulenen artean.



ELIZABETE ETXANOBE
DIPUTADA GENERAL

Horrenbestez, erronka horiei erantzuteko erabakiak hartu behar dira, etorkizuneko Bizkaia itxuratzeko, eta, aldi berean, gizarte-kohesioa blindatzeko, guztion esku egon dadin Bizkaia oparoagoa, babes sozial handikoa; Bizkaia berdea; bere identitatea indartu eta ondarea zainduko duena; emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerantz urrats irmoak ematen jarraituko duena; gazteei beren bizi-proiektua garatzeko aukera emango diena; adinekoei gure gizartearen garapenari ekarpena egiteko aukera emango diena; beharrezkoak diren pertsonak ondo zainduko dituen; eta aurrera egiten jarraitu nahi duen edonor besoak zabalik hartuko duena.

Erronka konplexuak dira, eta horiei aurre egiteko ezinbestekoa da lurralde kementsua izaten jarraitzea, talentua eta inbertsioak erakarriko dituen, kalitatezko enplegua sortuko duen ekonomia-sare lehiakorrekin; hori izango da eta pertsona bakoitzak bere bizi-proiektua eraikitzeko oinarria.

Bizkaiko herritarrek gure eskuetan utzi dute datozen lau urteetan Foru Aldundia zuzentzeko mandatua. Plan honetako 120 jarduketetan Bizkaiko herritar guztiekin dugun konpromisoa jasotzen da. Guztiontzako Bizkaia eraikitzeko dugun konpromisoa.



**ORAIN DAUKAGUN BIZKAIA
ETA LORTU NAHI DUGUN BIZKAIA**



2023-2027KO AGINTALDI-PLANA



ORAIN DAUKAGUN BIZKAIA

Bizkaia 1,1 milioi biztanle baino gehiago ditu, eta Euskadiko biztanleriaren %50 baino gehiago biltzen du. 2023an, jarduera-tasa %55etik gorakoa da, eta langabezia-tasa %10etik behera dago (%8,2 2023ko bigarren hiruhilekoan); joera hori errepikatu egin da azken bi urteetan. Era berean, garapen ekonomikoko maila nabarmena dugu, 2022an BPGaren urteko hazkunde zenbatetsia %4,5ekoa izanik, testuinguru ekonomiko konplexu batean.

Gizarte aurreratu batean bizi gara. Eta hori ez da kasualitatez gertatu, baizik eta gure aurretik egon diren pertsonen gogor lan egin dutelako, banaka eta elkarlanean, gaur egun daukagun Bizkaia osatzeko.

Erronkak ditugu aurretik. Ez dira errazak, baina gure indarguneetan oinarritu behar gara horiei aurre egiteko:

Ustekabeko gertakarien eta larrialdi-egoeren ondoriozko krisien aurreko erresilientzia-gaitasuna. Beti frogatu izan dugu erresilientzia hori dugula, eta gertuko adibideak ditugu: babesik gabeko gizarte-sektoreak zaindu ditugu, bai eta jarduera ekonomikoa eta enplegua ere.

Ekonomia lehiakorra eta enpresa sustatzaileak. Jarduera ekonomikoa ezinbestekoa da kalitatezko zerbitzu publikoei eusteko behar diren baliabideak sortzeko. Enpresa-sare sendoa dugu, lehiakorra, berrikuntzaren eta nazioartekotzearen aldeko apustua egiten duena, eta kalitatezko enplegua sortzen duena. Halaber, enpresa sustatzaile garrantzitsuak ditugu, horietako batzuk mundu-mailakoak, eta Bizkaiko aurkezpen-txartel garrantzitsua dira. Garapen teknologikoan ere maila handia dugu.

Gizarte-babeserako sistema aurreratu. Urteetan zehar, gizarte-babeserako eredu aurreratu bat eratu dugu, ongizate handieneko gizartearen parekoa. Eredu horretan, eremu publikoa da hurbileko eta kalitatezko zerbitzuak bermatzen dituena, eta gizarte-ekimenak ere hartzen dira barne. Ekimen horiek dira Bizkaia gizarte konprometitu eta solidarioa dela islatzen duten adierazlerik onenak.

Autogobernurako gaitasuna. Garatu dugun autogobernua funtsezkoa da gure indarrak sendotzeko eta egoeraren araberako krisiei eta egiturazko erronkei aurre egiteko. Ekonomia Ituna gure eskubide historikoen funtsa da, eta Bizkaiko gizartearen gehiengoak babesten duen autogobernuaren oinarria da.

Lankidetzeta eta auzolanaren tradizioa. Lankidetzeta da Bizkaiko balio handienetako bat. Maila guztietan laguntzen ohitu den gizartea gara, eta adibide hurbilena auzolana da. Gure auzo, herri eta hirien eraikuntzan inplikatu gara, eta horrela eraiki dugu Bizkaia.





ETORKIZUNeko ERRONKAK BIZKAIARENTZAT

Bizkaia gizarte irekia da. Hori dela eta, transformazio-prozesu azkar batean dagoen mundu baten erronka handiek eragina dute Bizkaian.

Erronka demografikoa. Biztanleriaren zahartzeari aurre egitea oso egoera positiboaren ondorioz gertatzen den erronka bat da, hala nola biztanleriaren osasun-baldintzen eta bizi-itxaropenaren handitzearen ondorioz, baina baita jaiotza-tasa izugarri jaitsi delako ere. Bi faktore horien konbinazioak gure zaintza-ereduari dagokionez erantzun berriak aurkitzera behartzen gaitu, gure adinekoren ongizatea bermatzeko, bai eta Bizkaia gaztetzea ere, jaiotza-tasa sustatzu, gure gazteei bizi-garapenerako aukera handiagoak eskainiz, Bizkaitik kanpo joan ez daitezen, eta maila ekonomikoan lehiakorra izango den Bizkaiari eusteko behar dugun talentua modu adimentsuan erakarritu eta mantenduz.

Erronka teknologiko-digitala. Erronka honek sektore ekonomiko eta sozial guztiei eragiten die, eta gure oparotasunaren funtsezko zati bat jartzen du jokoan, epe ertain eta luzera. Digitalizazio inklusiboko estrategia batetik heldu behar diogu, pertsona guztiek izan dezaten estrategia horren onura, eten digitala moztuz.

Jarduera ekonomikoaren eta lehiakortasun-oinarrien eraldaketa. Egungo gaitasunekin lotutako dibertsifikazioa bultzatzen jarraitzea, baita berrikuntza ere ikuspegi integral batetik, eskaria funtsezko elementu gisa sartuz, jarduera ekonomiko berriak sortzea, trantsizio energetiko klimatiko, teknologiko digital eta soziodemografikoak sortzen dituen aukerak aprobetxatzea eta funtsezko balio-kateen mendekotasuna murriztea gure ongizate-ereduaren jasangarritasun ekonomikorako palanka garrantzitsuak izango dira.

Erronka ekologiko-klimatikoa. Larrialdi klimatikoko egoera batean bizi gara, eta horrek gure ekoizpen-eta kontsumo-ereduak aldatzera behartzen gaitu, jasangarriagoak izan daitezen. Zehazki, gizarte gisa dugun energia-eraginkortasuna hobetu behar dugu, eta energia garbiak eta berriztagarriak ekoiztu eta kontsumitu behar ditugu. Ildo horretan, beharrezkoa da industria edo garraioa bezalako sektoreen deskarbonizazio-prozesua modu eraginkor eta ordenatuan bultzatzea, eta eskaria kontsumo-eredu iraunkorretara bideratzea (tokiko kontsumoa, hondakinen murrizketa, mugikortasun iraunkorra, etab.).

Erronka demografikoa

Erronka teknologiko-digitala

Jarduera ekonomikoaren eta lehiakortasun-oinarrien eraldaketa

Erronka ekologiko-klimatikoa

Trantsizio handiek sor ditzaketen desberdintasunak murriztea

Lurralde oreka

Gure nortasuna eta tradizioak babestea mundu globalizatu batean

Nazioarteko posizionamendua bultzatzea

Guztionez denaren balioa indartzea

Sektore publikoa berritzea eta etorkizuneko erronketara egokitzea

Herritarrek erakundeekiko duten konfiantza handitzea



Trantsizio handiek sor ditzaketen desberdintasunak murriztea. Bizkaiak aurre egin beharko dien erronka eta trantsizio handiek desberdintasuna areagotzea ekar dezakete, bereziki trantsizio eta automatizazio horien eragin negatiboena jasaten duten kolektiboetan. Beharrezkoa da estrategiak eta politikak abian jartzea, hori aurreikusita, Bizkaian bizi diren pertsona guztien ahalduntzea, inklusioa eta kohesioa bermatzeko.

Lurralde oreka. Bizkaia gizarte orekatua da, baina oreka hori indartu behar dugu, pertsona guztiek antzeko zerbitzuak eta aukera berdinak izan ditzaten, edozein tokitan bizi direla. Bereziki, gure landa- eta itsasertz-ingurunea zaindu behar dugu, funtsezkoa baita gure biodibertsitatea eta ingurune osasungarria mantentzeko.

Gure nortasuna eta tradizioak babestea mundu globalizatu batean. Globalizazioak lurraldeen bereizgarritasun-elementuak desagertzeko arriskua sortzen du. Horregatik, elementu horiek babestu, sustraitu eta balioetsi egin behar dira.

Nazioarteko posizionamendua bultzatzea. Gero eta globalizatuagoa den mundu honetan, beharrezkoa da Bizkaia enpresak, inbertsioak, talentua eta bisitariak erakartzeko aukera-lurralde gisa kokatzea, eta Bizkaiko ekonomia-, ingurumen- eta gizarte-garapeneko eredu nazioarteko agertokian erreferentzia izatea eta beste batzuegandik ikasiz hobetzea.

Guztiona denaren balioa indartzea. Globalizazioa eta krisi sistemiko desberdinak gero eta indibidualismo handiagoa sortzen ari dira. Gizarte gisa aurrera egiteko, pertsona bakoitzaren eskubideak defendatu behar ditugu, baina, aldi berean, “guztion ongia” indartzeko ezinbestekoak diren loturak sendotu behar ditugu.

Sektore publikoa berritzea eta etorkizuneko erronketara egokitzea.

Etorkizuneko erronkek administrazio bizkorragoak, efizienteagoak, eskuragarriagoak eta herritarrengandik hurbil daudenak eskatzen dituzte, eta horrek, aldi berean, talentu berria sartzeko eskatuko du. Berrikuntza pertsonen beharretara egokitzen diren zerbitzu publiko hobeak diseinatzean, ezartzean, ebaluatzean eta gobernantza egitean. Elkarlaneko Gobernantza publiko-pribatuaren eta komunitarioaren terminoetan lan egitea, elkarrekin Bizkaia modernoagoa, iraunkoragoa eta kohesionatuagoa eraikitzeke, Bizkaiaren etorkizuneko erronka estrategikoei aurre egiteko.

Herritarrek erakundeekiko duten konfiantza handitzea. Oro har, herritarrak erakundeen aurka jartzen ari dira. Joera hori lasaitu egin behar da, erakundeak baitira gure sistema demokratikoaren eta ongizate-estatuaren oinarria.

Erronka horiek guztiak “garapen jasagarria” edo “garapen orekatua” lortzeko erronka globalean bil daitezke. Garapen ekonomikoaren, gizarte-garapenaren eta ingurumen-babesaren arteko oreka. Eta orainaren eta etorkizunaren arteko oreka, egungo gizartearentzat ahalik eta ongizate handiena lortzeko, etorkizuneko gizartearen ongizateari kalterik egin gabe.





LORTU NAHI DUGUN BIZKAIA. GURE IKUSPEGIA BIZKAIARENTZAT

Bizitzeko eta lan egiteko lekurik onena den Bizkaia. 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datorren garapen sozioekonomikoko eredua duen lurraldea, pertsonak erdigunean jartzen dituen eta jasangarritasunarekin erabat konprometitu dagoena. Pertsona guztiei eta eskualde guztiei aukerak eskaintzen dizkien lurraldea da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak kalitate goreneko zerbitzu publikoen emaile gisa ez ezik, garapen-eragile gisa ere jarduten du, eta lankidetzak publiko-pribatu-soziala bultzatzen du.





EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA

Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaia ireki baten aldeko apustua egiten du, nazioartean lurralde lehiakor gisa ezagutua eta aintzatetsia. Lurralde honetan ekonomia oparoa da pertsona guztiei ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzeko beharrezko oinarria. Erreferentziatzko lurraldea balio erantsi handiko inbertsioak erakartzeko, enpresa-ekimenak garatzeko eta kalitatezko lan-aukerak eskaintzeko.

Kalitatezko enplegua duen Bizkaia. Enplegu gehiago eta kalitate handiagoa duen Bizkaia bat. Eta enplegu horrek lan-baldintza eta soldata duinak, bizi-kalitate hobea, egonkortasuna eta etorkizuneko proiektuak definitu eta gauzatzeko aukera eskainiko die Bizkaiko pertsonei.

Bizkaia industrial eta zerbitzu aurreratuetakoa. Jarduera industrialak eta horiei lotutako zerbitzu aurreratuak garrantzi handia izango dute ekonomian. Teknologikoki aurreratua duen eta baliabide naturalen erabileran arduratsua egiten duen industria bat izango dugu.

Bizkaia ekintzailea. Enpresa-proiektu berriei ekiteko eta horiek garatzeko lekuri onena izango den Bizkaia izango dugu, ekintzailea eta autoenplegura sortzen duena. Horretarako, beharrezko laguntza guztiak eskainiko dira eta ekintzaileek gure gizarteari ematen dioten balioa sustatu eta onartuko da.

Bizkaia lehiakorra. Bizkaia erreferentea izango da lehiakortasun-eredu jasangarri batean, eta modu orekatuan integratuko ditu garapen ekonomikoa, gizarte-garapena eta ingurumen-babesa.

Bizkaia talentuduna. Bizkaia talentua sortu, atxiki eta erakarriko du, talentua Bizkaia lehiakortasunerako eta ongizaterako giltzarria baita. Horretarako, enpresek estrategien erdigunean jarriko dituzte pertsonak.

Bizkaia digitala. Bizkaian eraldaketa digitala funtsezkoa da pertsonen bizi-kalitatea eta lurraldearen lehiakortasuna hobetzeko, eta, horretarako, Bizkaiko enpresa-sarea digitalizatzearen alde egiten du, enpresa txiki eta ertainetan bereziki eraginez, eta digitalizazio inklusibo baten alde, teknologiaren onurak Bizkaiko pertsona guztiengana irits daitezzen.

Bizkaia, mundura zabalik. Bizkaia irekia, ezaguna eta nazioartean nabarmendua, lurralde lehiakorra, kohesionatua, jasangarria eta ongizate-maila eta bizi-kalitate handikoa. Balio erantsi handiko inbertsioak, startup-ak eta talentua leialtzea eta erakartzea bultzatzeko erreferentziatzko lurraldea.

Bizkaia zerga-sistema justu eta solidarioarekin. Zerga-sistema progresibo eta bidezko batekin, diru-bilketaren nahikotasuna bermatzen duena, zerbitzu publikoen kalitatea ziurtatzeko eta gure ekonomia-sarea hazten laguntzeko. Eta gure ongizate-estatua arriskuan jartzen duten zerga-praktika insolidarioen aurkako borrokan are hurbilago eta eraginkorrago dagoen Foru Ogasuna izango du.



BIZKAIA SOZIALKI AURRERATUA

Bizkaia gaztea eta adin guztietarako aukerekin. Gazteak zaintzen dituen Bizkaia, haien bizi-proiektuak garatzeko lurralde erakargarria izan dadin aukerak eskainiz, baina 45 urtetik gorako pertsonak eta lan-aukera bat bilatzen duten iraupen luzeko langabeak ahaztu gabe. Azken batean, adin guztietarako lurraldea eraikitzea, pertsona guztiek beren bizi-proiektuak garatu ahal izateko baldintza egokiak sortuz eta erraztuz.

Bizkaia zaindaria. Bizkaiak pertsona ahulenei behar dituzten zainketak eskainiko dizkie, mendekotasun-egoeran dagoen inor bakarrik utzi gabe, ezta zaintzaile bakar bat ere ez da bakarrik arituko lanean. Zaintza horiek erantzukizun partekatua izan behar dute: indibiduala, baina baita kolektiboa ere; hau da, pertsonala eta instituzionala. Zainketa horiek pertsonen emango dituzte, baina, era berean, gaur egun teknologiak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatuko dira zainketak behar dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko.

Babesten duen Bizkaia inklusiboa. Pertsona guztiak lasai bizi ahal izango dira Bizkaian, gizarte-babeseko mekanismo nahikoak eta kalitatezkoak izango dituelako, kalteberatasun-egoeren aurrean “gizarte-babes” gisa jarduten dutenak, pertsonen egoera horiek konpontzeko eta bizitza osoa berriro bizitzeko behar dituzten baliabideak eskainiz.

Bizkaia, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrarekin. Bizitzaren esparru guztietan eta, bereziki, bizitza publikoan, emakumeen eta gizonen benetako berdintasun iraunkorra lortzeko baliabideak sendotuko ditu Bizkaiak. Indarkeria matxistaren kasu bakoitza, oraindik ere, eraso bat da gutako bakoitzarentzat, gizarte osoarentzat, eta gure esku dauden neurri guztiak hartuko dira indarkeria matxista behin betiko desagerrarazteko, berdintasunean heztetik eta berdintasunaren ikuspegia politika publiko guztietan txertatzetik hasita.

Bizkaia askotarikoa. Bizkaia askotarikoa, non espazio publikoa guztion espazioa den, non pertsona guztien gaitasunak eta ahalmenak nabarmentzen diren, eta beren eskubideak eta betebeharrak benetan gauzatzea bermatzen den, entzutea, enpatia eta harrera bultzatuz.



BIZKAIA BERDEA

Bizkaia neutraltasun klimatikoaren bila. 2050ean zero isurketa garbi egiteko Europako helburua betetzeko, gure lurraldearen trantsizio energetiko-ekologikoa azkartu behar dugu. 2030erako CO₂ isuriak % 37,7 murriztea erronka garrantzitsua da, eta funtsezko sektoreetan hainbat neurri ezarriko dituen plan batekin ekin behar diogu. Bizkaiak foru administrazioaren ekintza eredu garri baten alde egin du bere eskumenen eremuan larrialdi klimatikoaren aurrean.

Bizkaia energia garbiekin. Bizkaia eraginkorragoa izango da energiaren ikuspegitik, eta energia berriztagarriek gero eta pisu handiagoa izango dute. Foru Aldundia eredu izango da energia-kontsumoa murrizteari eta energia garbiak erabiltzeari dagokienez. Eta Bizkaiko enpresei laguntza ematen diela deskarbonizatzeko eta energia-eraginkortasuneko proiektuei ekin diezaieten, jasangarritasuna lehiakortasunaren funtsezko faktore bihurtuz.

Ingurune naturala babesten duen Bizkaia. Bizkaiak bere biodibertsitateari eta ekosistemen zerbitzuen erabilera iraunkorrari eutsiko die, eta bere ingurune naturala babestuko du, lurralde eta lehen sektore erresilienteagoak sortuz eta klima-aldaketaren ondorioak arintzen lagunduz, munduko larrialdi klimatikoaren aurkako borrokan erreferente izanik. Gainera, degradatutako espazioen ingurumen-berreskurapena bizkortzen duena, eta erabilera herritarrei itzuliko diena.

Modu arduratsuan ekoitzi, kontsumitu eta bizi den Bizkaia. Bizkaiak erantzun irmoa eta kolektiboa emango du larrialdi klimatikoaren aurrean, norbanakoaren erantzukizunetik, eta aurrerapauso sendoak emango ditu klima-neutraltasuna lortzeko 2050ean.

Bizkaia lehen sektore lehiakorrarekin. Nekazaritza eta abeltzaintza sektore ekonomikoak dira, eta elikagaiak emateaz gain, paisaia naturala bizirik mantentzea eta Bizkaiko landa-biztanleria finkatzea ahalbidetzen digute. Beraz, zaindu eta babestu beharreko elementu estrategikoa da, jarduera eta garapena bultzatuz. Bizkaiak lehen sektore indartsu eta lehiakorra behar du gure lurraldea zaintzeko.

Bizkaia ekonomia zirkularrarekin. Bizkaiak toki-eskumeneko hondakinen arloan duen estrategiaren helburua da ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatzea haren kudeaketan, eta lurraldea ingurumena zaintzeko konpromisoa duen gizarte bihurtzea ahalbidetuko duen tresna da, neutraltasunaren funtsezko printzipioaren gainean (“hondakinik ez sortzea”).





BEREZKO NORTASUNA DUEN BIZKAIA

Bizkaia gure kulturarekin. Bizkaia erreferente kulturala izango da bere ondarearen kudeaketan eta kontserbazioan, bere tradizioen berritzean eta bere talentu kultural eta artistikoaren tokiko eta nazioarteko sustapenean. Kultura horrek, gure lurraldean errotuta dauden kultura-gertakarien eta -balioen belaunaldien arteko transmisioa lehenetsiz, garapen ekonomikoaren eragile eta enplegu-sortzaile da.

Bizkaia euskalduna. Bizkaian, euskara gizarte-kohesiorako eta integrazioarako ezaugarria eta tresna izango da, eta euskara presente egongo da gizarte-harremanen eremu bakoitzean. Hizkuntza-eskubideen zaintzan erreferente izango da Aldundia, euskara ohiko lan-hizkuntza izango du, eta gai izango da herritarrei zerbitzu onenak euskaraz eskaintzeko.

Balio solido propioak dituen Bizkaia. Bizkaiak indartu egingo ditu gizarte gisa dituen ezaugarrien balioak. Gure lankidetzatradizioa, erresilientzia, elkartasuna, esfortzu eta lanerako gaitasuna eta edozein zailtasun gainditzeko ilusioa bezalako balioek, erronkei elkarrekin aurre egiteko eta Bizkaiko garapen jasangarrian aurrera egiteko kohesio-elementu gisa balio dute.

LURRALDE OREKA DUEN BIZKAIA

Proiektu eraldatzaileak Bizkaiko eskualde guztietan. Bizkaian, udalerrri eta eskualde guztiak aukera-gune izango dira. Gune horiek, Aldundiaren laguntzarekin, beren indarguneak eta potentzial endogenoa baliatzen dituzte garapen ekonomiko jasangarrirako eta kalitatezko enplegurako aukerak sortzeko.

Bizkaiak mugikortasun sistema iraunkor eta eraginkorra du, eta lurralde osoa egituratzen du. Mugikortasun berria izango du Bizkaiak, trantsizio energetiko eta digitalekin lerrotuta. Garraiobideen banaketa eraginkorragoa eta interkonektatuagoa izango da, eta ardatz egituratzailea garraiobide publikoak izango dira, oinezko mugikortasuna eta bizikleta baitira azken miliarako lehenetsuneko moduak.

Aukera-berdintasuna eta landa eremuko garapenarekin konprometuta eta solidarioa den Bizkaia. Bizkaian, pertsona guztiek antzeko zerbitzuak eta aukera berberak izango dituzte, bizi diren tokian bizi direla. Gizarteak badaki zer balio ematen dion Bizkaia landatarrak lurralde osoari.



ALDUNDI INDARTSUA, HURBILA ETA MODERNOA DUEN BIZKAIA

Aldundi indartsu eta eraginkorra, Elkarlaneko Gobernantzaren ikuspegitik eta maila anitzetan beste erakunde publiko, pribatu eta/edo sozial batzuekin lan egiten duena, elkarrekin Bizkaia modernoagoa, iraunkorragoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko, zerbitzu publiko hobeak eta integratuagoak eskainiz. Aldundia erabat digitalizatuta dago, izapide errazagoak eta eskuragarriagoak ditu, eta herritarrentzako arreta-zerbitzu hurbilagoak.

Garapen eredu jasangarriarekin konprometitutako Aldundia. Garapen Jasangarrirako Helburuak bere estrategian eta kudeaketan erabat integratuko ditu Aldundiak.

Tokikoarekin konprometitutako Aldundia. Foru Aldundiak aktiboki lan egiten du udalekin eta mankomunitateekin kudeaketa modernizatzeko, kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko gaitasuna handitzeko eta beren lurraldeen garapen iraunkorra dinamizatzeko, eta, horrela, lankidetzan laguntzen du zerbitzu publikoen eskaintzan ekitatea lortzen eta lurraldeko udalerri guztietan aukera-berdintasuna lortzen. Horretarako, udalerriekiko eta, are gehiago, udalerri txiki eta ertainekiko hurbiltasunak eta entzute aktiboak funtsezkoak izan behar dute lurralde-kohesioa eta gizarte-kohesioa bermatzeko.

Aldundi irekia (gardena, parte-hartzailea eta kontuak ematen dituen).

Aldundiak gobernu ona bultzatuko du eta herritarrei etengabe entzungo die, haien eskaerak eta beharrak zerbitzu publiko hobe batetik ezagutzeko eta erantzuteko, eta herritarrek parte hartzeko guneak eta dinamikak eskainiko ditu. Aldundiak gardentasunean sinetsiko du, herritarren eskubide gisa eta konfiantza sortzeko tresna gisa. Aldundiak kontuak emango ditu kudeaketari eta hartzen dituen konpromisoei buruz.



**2023-2027KO AGINTALDIRAKO
LEHENTASUNEZKO JARDUERAK**



2023-2027KO AGINTALDI-PLANA



2023-2027KO AGINTALDIRAKO LEHENTASUNEZKO JARDUERAK

Jarraian, 2023-2027ko agintaldirako ezarritako lehentasunezko 120 jarduerak zerrendatu dira.

120 jarduera Bizkaia hobe egiten jarraitzeko. Gure adinekoen eta egoera okerreanean dauden pertsonen zaintza hobetzen jarraitzeko, ongizate ekonomikoa eta kalitatezko enplegua bermatzen jarraitzeko, iraunkortasunaren arloan erreferentziazko lurraldea osatzen jarraitzeko eta erakunde kalitatea hobetzen jarraitzeko jarduerak, Bizkaian hazkunde ekonomikoa eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bermatzeko funtsezko elementua baita.

120 jarduera, 6 ardatzetan banatuta:

EKONOMIA OPAROA DUEN Bizkaia	29 jarduera
Bizkaia SOZIALKI AURRERATUA	26 jarduera
Bizkaia BERDEA	18 jarduera
BEREZKO NORTASUNA DUEN Bizkaia	15 jarduera
LURRALDE OREKA DUEN Bizkaia	21 jarduera
ALDUNDIA INDARTSUA, HURBILA ETA MODERNOA DUEN Bizkaia	11 jarduera

Jarduera horietako bakoitzean, honako hauek sartzen dira:

- Jardueraren deskribapena.
- Foru Sail arduraduna.
- Zer GJH lortzen laguntzen duen. GJH berri bat sartu da (18. GJH Hizkuntza eta Kultura Aniztasuna), eta 2024tik aurrera Euskadiko 2030 Agendan sartuko da.

GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUAK	
1	POBREZIA DESAGERRARAZTEA
2	GOSERIK EZ
3	OSASUNA ETA ONGIZATEA
4	KALITATEZKO HEZKUNTZA
5	GENERO BERDINTASUNA
6	UR GARBIA ETA SANEAMENDUA
7	ENERGIA IRISGARRIA ETA EZ KUTSAGARRIA
8	LAN DUINA ETA HAZKUNDE EKONOMIKOA
9	INDUSTRIA, BERRIKUNTZA ETA AZPIEGITURA
10	DESBERDINTASUNAK MURRIZTEA
11	HIRI ETA KOMUNITATE JASANGARRIAK
12	EKOIZPEN ETA KONTSUMO ARDURATSUAK
13	KLIMAREN ALDEKO EKINTZA
14	ITSASPEKO BIZITZA
15	LEHORRREKO EKOSISTEMETAKO BIZITZA
16	BAKEA, JUSTIZIA ETA INSTITUZIO SENDOAK
17	HELBURUAK LORTZEKO ALIANTZA
18	HIZKUNTZA ETA KULTURA ANIZTASUNA



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.1 “Talentuaren aldeko konpromisoa” hedatzea, talentua Bizkaian erakartzeko, mantentzeko eta atxikitzeko	Jarduera hori honako neurri hauen bidez antolatuko da: • STEM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika) bokazioak eta enpresen lehiakortasunerako beharrezkoak diren gaitasun kritikoak bultzatzeko ekimen berritzaileak (prestakuntzakoak, lehiaketak...) • Talentua garatu, fidelizatu eta erakartzeko helburua duten enpresei eta pertsoneri zuzendutako laguntza-programak. • Talent House bat (talentuaren etxea) irekitzea Zorrotzaurren, nazioarteko talentuaren ostatu-beharrei erantzuteko. • Talent Office bat (talentuaren bulegoa) abian jartzea, lurraldera hurbiltzen diren pertsoneri prestakuntza espezifiko eskuratzeko edo lan egiteko beharrezkoak diren izapide guztiak errazteko. • 42 Bizkaia bezalako ekimenak sendotzea eta skilling, reskilling eta upskilling arloko beste ekimen batzuk sortzea, STEM gaietan gaitasunak garatzeko, batez ere digitalizazioarekin lotutako eremuetan. • Bereizgarriak diren eta Bizkaia konpetentzia digitaletan erreferentziazko lurralde gisa kokatzea ahalbidetzen duten prestakuntza- eta teknologia-proiektuak babestea. • Bizkaia posizionatzeko estrategia bat garatzea, “talentuaren lurralde gisa, employer branding lerroa barne. • Enpresei laguntzea, enpresa txiki eta ertainei lehentasuna emanez, branding enplegatzekeko estrategiak gara ditzaten, talentua fidelizatzearekin eta erakartzearekin lotutako emaitzak hobetzeko.	Ekonomia Sustatzeko saila	
1.2 Autoenplegua eta ekintzailtza sustatzea	Bizkaian autoenplegua eta ekintzailtza sustatzea, hainbat neurriren bidez: Ekintzailtza Eskola bultzatzea, proiektuei laguntza integrala ematea eta autoenpleguari eta enpresa-transmisioari laguntzea. Era berean, Bizkaiko produkzio-sarearekin lankidetzan jardungo da, etorkizuneko enplegarritasun handiko sektoreetan beharrezkoak diren konpetentziak identifikatzeko, gizarteratzeko eta birkualifikatzeko programak enpresen premiekin eta lurraldeko aukerekin lotzeko.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.3 Zerbitzuen eskaintza integrala eta ekintzailatza aurreraturako finantzaketa	Jarduera honen helburua da Bizkaian ekintzailatza aurreratua eta berritzailea bultzatzea, kalitatezko enplegu-iturri gisa, nazioarteko enpresa-proiektuak erakartzeko trakzio-gaitasuna izango duen ibilbide batekin, eta balio bereizgarriko proposamenak definitzen, kalitatezko enpleguak sortzen eta enpresak hazten lagunduko duena. Horretarako, honako hauen eskaintza indartuko da: laguntza-programak, zerbitzu eta ekimen bultzatzaileak, finantzaketa, inkubazio-espazioak eta -zerbitzuak, enpresekiko berrikuntza irekiko dinamikak, azelerazio-programak, mentore-sarea, inbertitzaileen sarea, nazioarteko nodoekiko konexioa edo bikaintasun-zentroekiko eta ekosistemako gainerako eragileekiko konexioa. Finantzaketari dagokionez, helburua da ekimen horietarako finantzaketa-ekosistema zabalagoa eta erakargarriagoa eratzea. Horretarako, Seed Capital Bizkaia eta Crowdfunding Bizkaia bidez eskaintako finantzaketa handituko da, nazioarteko funts berriak erakarriko dira eta Bizkaian eragin soziala duten proiektuetarako inpaktu-inbertsioetara bideratutako finantzaketa-formulak handituko dira.	Ekonomia Sustatzeko saila	
1.4 BAT (B Accelerator Tower), Ekintzailatzaren Nazioarteko Zentroa, sendotzea	Ekintzailatzaren Nazioarteko Zentroaren 2. eta 3. faseak garatzea, nazioarteko erreferentzia diren beste ekintzailatza-nodo batzuekiko loturak indartuz, startup berriak erakarriz lurraldera, Zentroan kokatutako startup berritzaileen hazkundera bizkortuz eta lurraldeko enpresa erreferenteen berrikuntza sustatuz berrikuntza irekiaren bidez. Horren guztiaren helburua Bizkaia ekintzailatzaren eta berrikuntza irekiaren nazioarteko erreferente bihurtzea da.	Ekonomia Sustatzeko saila Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako saila	
1.5 Bizkaiko ETEak digitalizatzeko laguntza	Bizkaiko enpresa txiki eta ertainentzako digitalizazio-estrategia bat diseinatzea eta abian jartzea, haien prozesuetan teknologia berriak txerta ditzaten, eraginkorrak izan daitezen, eta produktu eta zerbitzuak erabil ditzaten, balio handiagoa emateko eta negozio-eredu berriak garatzeko. Estrategia horrek izaera integrala izango du, eta sentsibilizazio-, gaikuntza- eta dirulaguntzak jasoko ditu.	Ekonomia Sustatzeko saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.6 Bikaintasun lehiakorreko eta garapen teknologikoko zentroen sarea sendotzea	Bizkaian dauden bikaintasun-zentro sektorialak sendotzea, gure enpresek dituzten erronka estrategikoei laguntzeko. Zehazki, AIC-Automotive Intelligence Centerrek mugikortasun jasangarriaren inguruan garatutako lana bultzatzen jarraituko da, CFAA-Aeronatutikako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa manufaktura aurreratuaren inguruan, eta heltze-fasean dauden beste zentro batzuk sarean integratzeko lan egingo da.	Ekonomia Sustatzeko saila	
1.7 EIC, Energy Intelligence Center	EICaren garapenean aurrera egitea, trantsizio energetikoan, oro har, eta hidrogenoaren energiaren garapenean, bereziki. Horren barruan sartzen da full scale tailerra eta laborategiak martxan jartzea, eta, aldi berean, zerbitzu ez-teknologikoak eskaintzea EICri atxikitako enpresei, baita bigarren fase bat garatzea ere, hidrogenoaren living lab bat barne hartuko duena, Bizkaian kate teknologiko industrialak garatzeko aukera emango duten azpiegitura eta ekipamenduekin.	Ekonomia Sustatzeko saila Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.8 NIC, Nagusi Intelligence Center	NICK zahartzearen, osasunaren eta iraupen luzeko zainketen inguruko jardura ekonomikoa bultzatu nahi du, Administrazio Publikoaren, Sektore Pribatuaren eta Unibertsitatearen arteko topagune gisa jardunez, enpresa- eta ekintzailatza-proiektu berriak sortzeko, biztanleriaren zahartzearen erronkak planteatzen dituen erronkei erantzuteko.	Ekonomia Sustatzeko saila Gizarte Ekintza saila Ahalduen Nagusiari Laguntzeko Unitatea	3 4 8 9 10 11 17
1.9 Bizkaia Quantum Industrial Hub. Teknologia kuantikoen poloa	Basque Quantum estrategiaren esparruan, teknologia kuantikoen inguruko polo bat martxan jartzea. Polo horrek ikerketa, berrikuntza eta ekintzailatza aurreratua ikuspegi industrial argiarekin eta aplikagarritasunarekin uztartuko ditu. Optika kuantikoko alfabetizaziorako lehen laborategi bat izango du eta ondoren sentzorika eta metrologia laborategiak. Gainera, enpresekin aplikazioko proiektu pilotuak garatuko dira eta Bizkaia teknologia kuantikoetan gaitzeko eta arlo horretan talentua eta startupak erakartzeko erreferentziatzko leku bihurtzeko lan egingo da.	Ekonomia Sustatzeko saila Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila	4 6 9 17
1.10 Global Smart Grids Innovation Hub. Sare adimendunen poloa	Global Smart Grids Innovation Hub (GSGIH) erakundearekin lankidetzan aritzea, talentu espezializatua erakartzeko gune bihurtzea eta Bizkaia sare adimendunetan erreferentziatzko lurralde gisa kokatzea. Hori guztia, sektore estrategiko horren inguruan balio teknologiko-industrialeko katea garatzen eta indartzen laguntzeko.	Ekonomia Sustatzeko saila	4 7 8 9
1.11 Bike Intelligence Center	Bizikletaren inguruko balio teknologiko industrialeko kate baten garapenean aurrera egitea, Bike Intelligence Centerren bidez, lurraldeko sektorearentzat negozio berriak garatzea ekarriko duten aukera berriak identifikatuz.	Ekonomia Sustatzeko saila	4 8 9 12



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.12 Hub Audiobisuala: Tokiko ikus-entzunezko ekoizpenei laguntzea	Punta Zorrotzan ikus-entzunezko hub berri bat definitzea eta martxan jartzea, sormen-industria garatzeko, Bilboko Udalarekin lankidetzan. Ikus-entzunezkoen eta sormenaren industriarako espazioak garatzea, enpresak eta startup-ak erakarriko dituztenak eta industria horren inguruan ekosistema bat sortzen lagunduko dutenak, Bizkaia Sortzailea estrategiaren esparruan landu izan dena.	Ekonomia Sustatzeko saila Euskara, Kultura eta Kirol saila	
1.13 Bizkaiko enpresen lehiakortasunari laguntzeko programa, zerbitzu eta ekimenen ibilbide osoa	Jarduera hori 4 ardatz nagusiren inguruan antolatuko da: • BERRIKUNTZA hobetzea. Zerbitzuen ibilbide bat eta laguntza-programak eskaintzea, gure ETEen artean berrikuntza sustatzeko hainbat arlotan, hala nola prozesuen eraginkortasunean, produktu eta zerbitzu berrien garapenean eta dibertsifikazioan, eta negozio-unitate eta enpresa berrien sorreran. Era berean, Bizkaiko I+G+B zentroen sarearen teknologia- eta berrikuntza-gaitasunak handitzen lagunduko da, enpresa-sarerako teknologia-transferentzia areagotu eta sustatzeko. • Gure ETE-ak NAZIOARTEKOTZEA. Gure ETEei beren produktuak herrialde berrietan sal ditzaten laguntzea, laguntza ekonomikoan, aholkularitza-zerbitzuen eta nazioarteko partzuergoen sorreraren bidez. • LANKIDETZA. Enpresa-erakundeei, klusterrei, ETEen artean lankidetzat sustatzen duten eta elkartutako enpresen artean lankidetzat proiektuak abian jartzen dituzten bitarteko agenteei laguntzea, berritzeko, digitalizatzeko, nazioartekotzeko, deskarbonizatzeko edo hornikuntza-kateak birdefinitzeko. • PERTSONAK erakundearen erdigunean. Enpresak kontzientziaztea eta eraldatzen laguntzea, pertsonen bideratuago dauden erakundeetarantz, non pertsonak baitira erakundearen strategiaren erdigunea eta talentua errotzeko, talentu berria erakartzeko eta hazten jarraitzeko funtsezko zutabea.	Ekonomia Sustatzeko saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.14 Emakumeak enpresan eta zientzian eta teknologian duen zeregina sustatzea	Neskak eta gazteak sentibilizatzeko eta ahalduztzeko programa bat abian jartzea, bai eta industriaren eta STEMen eremuan emakumea sartzeko erraztuko duten programa berritzaileak ere. Horren barruan sartuko dira: - Bizkaiko enpresetan eta zientzian eta teknologian emakumeek duten presentzia eta Bizkaiko ekonomiari egiten dioten ekarpena ikusaraztea, eta emakumeen presentzia publikoa sustatzea, arlo horietan emakumeen erreferenteak sortzeko. - Emakume enpresarien, ekintzaileen eta zuzendarien arteko lankidetzak-sareak sor daitezkeen bultzatzea. - Ekintzailetzaren Behatokia eta emakumeek gidatutako enpresak indartzea, bai eta emakumeak Bizkaiko zientzian eta teknologian duen presentzia ere, arlo horietan genero-ikuspegia duten politika publikoak diseinatzeko eta garatzeko oinarritzko tresna gisa. - Bizkaia, emakume ekintzaile eta zuzendarien erreferentzia. Emakumeak buru dituzten enpresa-ekimen berritzaileak garatzeko eta hazteko dauden zerbitzuen eta laguntzen aukera zabala garatzea.	Ekonomia Sustatzeko saila Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila	
1.15 Bizkaia helmuga turistiko iraunkor gisa sustatzea, Bilbao Bizkaia 2030 aliantza eta Turismo Estrategia indartuz	Bizkaia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatzea, aliantza Bilbao Bizkaia 2030 eta Turismo Estrategia eta erakundearen arteko koordinazioa eta lankidetzak indartuz. Jarduera horrek zera hartzen du barne: - Lurralde osoan bisitari-fluxuak banatzeko eta turismoa desestacionalizatzeko ekimenak. - Turismo jasangarria bultzatzeko estrategiak diseinatzeko eta ezartzea. - Lurraldea nazioartean proiektatzen jarraitzea eta inbertsio, ekitaldi eta kongresu berriak erakartzea. - Bilbo-Bizkaia helmuga sustatzea, lehentasunezko merkatu eta segmentuetan arreta berezia jarrita. - Bizkaiko toki- eta eskualde-erakundearen eta turismo-enpresen arteko lankidetzak-lana dinamizatzen jarraitzea, Bilbao Bizkaia Action Groupen (BBAG) bidez.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.16 Bizkaiko adimen turistikoko sistema	Bizkaiko Turismo Behatokia indartzea, eta, sektorearekin lankidetzan, turismo-adimeneko sistema aurreratu bat garatzea, turismoari lotutako jardueren iraunkortasuna bermatzeko. Gainera, aktiboki parte hartuko da Turismoaren Mundu Erakundearen (TME) Turismo Jasangarriko Behatokiaren Nazioarteko Sarean.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	
1.17 Bizkaiko turismo-sektorea indartzea	Jarduera horren barruan sartuko dira: - Sektorea profesionalizatzeko, digitalizatzeko, lehiakortasunerako eta prestakuntzarako ekimenak. - Merkatuak sustatzeko, produktuak finkatzeko, turismoa erakartzeko ekitaldiak egiteko eta turismo-produktuen eta -zerbitzuen iraunkortasun handiagoa lortzera bideratutako arloetan sektorearen ekintzak bultzatzea. - Landa-turismoa sustatzeko eta helmugan eskaintzen diren turismo-jarduerak zabaltzeko ekintza espezifikoak.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	
1.18 Datuaren, berrikuntzaren eta teknologiaren kultura bultzatzea, Bizkaiko garapen ekonomikoaren ardatz egituratzaile gisa	Jarduera hau hauetan zehaztu da: - Bizkaiko Foru Aldundiaren datuen gobernantzarako estrategia eta eredia ezartzea, elkarreragingarritasuna sustatzeko eta datuen analisiak gidatutako kultura sustatzeko, foru-zerbitzuak hobetzeko funtsezko tresna gisa, datuen erabilera etikoa, segurua eta arduratsua ziurtatuz. - BAIDATA, Bizkaian datuen ekosistema publiko-pribatua sustatzera bideratutako proiektua. - Atlantic Data Infrastructure sortzea. Azpiegitura teknologiko hori Ezkerraldeko Parke Teknologikoan kokatuko da, eta aukera emango die enpresei eta erakundeei hodeian informazioa biltegiratzeko ahalmen handia izateko, segurtasun eta hurbiltasun handieneko irizpideei jarraikiz, eta horren gainean garatzeko eraldaketa digitaleko prozesuak.	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila Ekonomia Sustatzeko saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.19 Inbertsioak erakartzea. Invest in Biscay	Inbertsioak erakartzeko lan aktiboa garatzea, eta enpresa-proiektua Bizkaian garatu nahi duten enpresei laguntza-zerbitzu integrala eskaintzea, gure lurraldean ezartzeko. Zerbitzu horrek barne hartuko ditu, laguntza ekonomikoak, kokapenerako aholkularitza eta erakarritako enpresak finkatzeko laguntza.	Ekonomia Sustatzeko saila Ahaldun Nagusiari Laguntzeko Unitatea	
1.20 Nazioarteko eragina duten ekitaldiak antolatzea eta erakartzea	Jarduera horrek zera hartzen du barne: Dagoeneko lortu diren inpaktu handiko ekitaldiak modu arrakastatsuan antolatzea, hala nola UEFA Women Txapeldunen Ligako finala 2024an eta UEFA Europa Leagueko finala 2025ean.	Ekonomia Sustatzeko saila	
1.21 Bizkaia kanpoan sustatzea (jarduerak merkatu estrategikoetan)	Lurraldeko eragile nagusiekin partekatutako esparru estrategiko bat antolatzea, Bizkaia kanpoan sustatzeko, lehentasunezko merkatuak identifikatuz eta gure nazioarteko ikusgarritasuna eta posizionamendua indartzeko jarduerak sorta bat formulatuz eta hedatuz. Gainera, Lurraldearen sustapen ekonomikoaren zerbitzura dauden nazioarteko harreman eta konexio sendoak sortu eta mantendu nahi dira.	Sail guztiak	
1.22 Bizkaia lurraldean sustatzea: Welcome to Bizkaia (jarduerak lurraldean)	Ekimen horren bidez, Bizkaia sustatzeko eta komunikatzeko euskarriak sortuko dira, nahi den posizionamenduarekin loturak eta publiko, merkatu eta interes-talde ezberdinei egokituta. Bertan, erreferentziarako espazio fisiko berezi bat sortuko da, nazioarteko eragile eta misioei harrera, ongi-etorria eta Bizkaia aurkezteko, lurraldeko eragile sozioekonomiko guztiei irekia, bai eta Bizkairako estrategikoak diren proiektu eta sektoreei lotutako alderantzizko misioak antolatzeko ere.	Ekonomia Sustatzeko saila Ogasun eta Finantza saila Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.23 Bizkaiko merkataritza- eta artisau-sarea berritzea eta dinamizatzea	- Bizkaiko merkataritza-ehunaren berrikuntza bultzatzea, etorkizuneko dendaren aldeko apustua eginez eta retaila aukerak dituen jarduera-sektore bihurtuz, belaunaldi berrientzat ere erakargarria eta kontsumitzaileen beharretara eta itxaropenetara egokituia. Lankidetzan jardungo da komertzio-gileen elkarrekin, Bizkaiko udalerrri eta eskualdeetako merkataritza txikiei zuzendutako erakartze-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzu berriak garatzeko. - Artisautzari ematen zaion laguntza areagotzea, inbertsioak egiteko eta harreman/networking guneak sortzeko eta ezagutza eta esperientziak trukatzeko laguntza-programen bidez.	Ekonomia Sustatzeko saila	
1.24 Lehen sektore modernoagoa, iraunkorragoa eta lehiakorra	Nekazaritzako ustiatzeak (artzaintza birtuala, genotipatua, jetze robotizatua...) erabiltzen lagunduko duten eta jasagarriago egingo duten ekipamendu eta sistema teknologikoak (eraginkortasun energetikoko sistemak) sartzen laguntzea. Era berean, Aldundiarekiko komunikazioa hobetu eta erraztuko da dagozkion izapideetan, LANDATEK aplikazioa sortuz, eta Renove Planak jarriko dira abian azpisektore estrategikoetan (berotegiak, untziak, hegaztiak...).	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	
1.25 Belaunaldien arteko erreleboa lehen sektorean	Jarduera horrek zera hartzen du barne: - Ekimen berritzaileak bultzatzea sektorean pertsona berriak sartzeko. - Nekazaritzako ekintzailetzari laguntzea, inbertsiorako laguntzen bidez eta nekazari berriak eta ezagutza eta esperientziak gaitzeko eta trukatzeko ekintzak sartuz. - Nekazari mistoei laguntzeko tresnak aztertzea, profesionalizaziorako trantsizioan funtsezko elementu gisa. - Lehendik dauden nekazaritza-azpiegiturak aprobetxatzeko irtenbide berriak: errelebo irekia, bitartekaritza...	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.26 Ekonomi Itunaren defentsa, garapena eta sustapena, autogobernuaren tresna nagusi gisa	Ekonomi Ituna autogobernurako tresna nagusia eta bereizgarriena da. Horregatik, horien defentsa, garapena eta sustapena helburu estrategikoa da. Honako lan-ildo hauetan egingo da aurrera: - Nazioan zein nazioartean agertzen ari diren zerga-figura berriak ituntzea sustatzea, lurralde historikoen araugintza-gaitasuna aitortzea defendatuz, eta horrela, zerga-politika propioa diseinatu eta aplikatzea ahalbidetzea. - Ekonomi Ituna ezagutzen eta ulertzen dela ziurtatzea, hura nazioan eta nazioartean zabaltzeko eta gizarte-eragileak eta herritarrak autogobernurako duen garrantzi estrategikoaz kontzientziatzeko jardueren bidez. - Bizkaiko Foru Ogasunaren parte-hartze aktiboa bultzatzea fiskalitate globala eratzten duten erabakiak hartzen ari diren nazioarteko erakundeen lantaldeetan.	Ogasun eta Finantza saila	 
1.27 Bizkaiko zerga-sistema berrikustea, eraginkortasunaren, ekitatearen eta nahikotasunaren ikuspegitik, gainerako euskal erakundeekin harmonizatuta	Segurtasun juridikoa eta zerga-arloko konfiantza mantenduz, zerga-sistema berrikustea, gainerako euskal erakunde publikoekin batera zerga-politikak zerga-sistemaren efizientzia-, ekitate- eta nahikotasun-printzipioak indartzen lagun dezan: - Efizientzia: fiskalitatetik gizarteak izango dituen eraldaketa handiei erantzunez (demografikoa, ekologiko-ingurumenekoa eta teknologiko-digitala), bai eta jarduera ekonomikoa sortzeko, ekintzailatza sustatzeko eta kalitatezko enplegua sortzeko helburuari ere. - Ekitatea: zergadun guztiei aurrez aurreko laguntza, telefono bidezkoa eta digitala emanez, zerga-betebeharrak bete ditzaten. - Nahikotasuna: sozialki aurreratua den Bizkaiaren ezaugarri diren zerbitzu publikoen prestazioa mantentzeko eta sakontzeko beharrezkoak diren baliabideak lortuko direla ziurtatuz. Zerga-sistema progresibo, zuzen, zuzen eta soildario bat, inor atzean ez uzten lagunduko duena, Nazio Batuen 2030 Agendaren GJHein bat datozen neurriekin. Ikuspegi horrekin berarekin, eta Bizkaiko udalekin lankidetzan, tokiko trinitazioa berrikusteari eta katastro-balioak eguneratzeari ekitea, udal horiek Bizkaiko trantsizio-prozesuetan subjektu aktibo izan daitezen sustatuz, beren ahalmen fiskalak erabiliz.	Ogasun eta Finantza saila	 



EKONOMIA OPAROA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
1.28 Bizkaiko tokiko finantzaketa-sistema eguneratzea	Toki Ogasunei buruzko Foru Araua (2005ekoa) eguneratzea, egungo errealitatera egokitutako udal-finantzaketa banatzeko irizpide berriein.	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila Ogasun eta Finantza saila	  
1.29 Iruzur sozialaren aurkako borroka	Iruzur fiskalaren aurkako jarduketetan sakontzea, elkartasunik ezaren agerpen biziena den aldetik, eta, horrela, guztiek euskal erakunde publikoek ematen dituzten kalitatezko zerbitzu publikoei eusten laguntzea. Horretarako, besteak beste, zerga-iruzurraren aurkako plana onartu eta urtero gauzatzea, ekitaldi bakoitzean egin beharreko informazioa lortzeko, aurrea hartzeko eta erregularizatzeko eta kobratzeko jarduerak zehaztuz, eta BATUZ sistemaren behin betiko ezarpena amaitzea.	Ogasun eta Finantza saila	 



BIZKAIA SOZIALKI AURRERATUA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
2.1 Bizkaiko gazteen emantzipazioa bultzatzea	Emantzipazioa erraztea, Bizkaiko gazteen bizi-proiektuen garapena ahalbidetzeko. Horretarako, Aldundiak hainbat jarduera-ildotan lan egingo du: • Udal Gaztedi programa bultzatzea, toki- eta eskualde-mailan gazteek parte har dezaten eragiten dieten politikak egiten eta ebaluatzen. • Helduarora igarotzeko bidean emantzipatzeko zailtasun gehien dituzten gazteei laguntzea, erantzukizunaren balioa eta enplegurako orientazioa modu espezifikoan sustatzen dituzten ibilbide pertsonalizatuen bidez • Eusko Jaurlaritzarekin eta beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, gazteen emantzipazioa erraztuko duten neurriak hartzeko funtsezko eremuetan, hala nola etxebizitzan eta enpleguan.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.2 Erronka demografikoaren konponbideak Bizkaian	Bizkaiko erronka demografikoari heltzeko estrategia bat formulatzea eta abian jartzea. Agintaldian zehar, gainerako erakundeekin lankidetzan, zehaztutako estrategia gauzatzeko beharrezkoak diren planak eta tresnak jarriko dira abian.	Sail guztiak	
2.3 Aldundiaren eta Bizkaiko gazteen arteko lotura sendotzea	Helburu hori lortzeko, neurri hauek bultzatuko dira: • Gazteen eta Administrazioaren arteko noranzko biko komunikazio-kanal eta -sareen eraikuntzan aurrera egitea, “Gazte saregileak” eta “Bizkaia gazteak” ekosistemaren bidez. • Lurraldeko gazteek eskura dituzten laguntza eta baliabideak zabaltzea, eta haien kezkak eta proposamenak jasotzea. • Bizkaiko gazteek autokudeatutako eta/edo Administrazioak, sektore pribatuak eta gazteek parte hartutako proiektuak babestea eta erraztea.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	



BIZKAIA SOZIALKI AURRERATUA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
2.4 Mendeko pertsonen etxean egoten laguntzea, etxeTIC zerbitzua pixkanaka zabalduz	etxeTIC zerbitzuaren hedapenean aurrera egitea, Zallako, Mungiako eta Basauriko zentroak irekiz, bai eta zerbitzua ezartzeko nahikotasuna eta lurralde-oreka ematen duten beste zentro batzuk irekiz. Halaber, Ondarroan etxeTIC zerbitzu puntual deszentralizatuak eskainiko dira, Lea-Artibaiko goiburuko etxeTIC zentroa ireki eta abian jarri arte. Zentro hori Markinan kokatuko da. Era berean eta helburu berarekin, eguneko zentroak etxeTIC eredura egokituko dira. etxeTIC-ek etxean egoteko zaintza behar duten pertsona askoren nahiari erantzuten dion eredu bat eskaintzen du, eta eguneko zentro baten berezko arreta eta etxe laguntza- eta prebentzio-teknologiaren bidezko arreta, erreferentziako zentrorako laguntza puntuala eta Bizkaiko Zaintzaileen Estatutuan aitortzen diren “atsedenerako zerbitzuak” konbinatzen ditu.	Gizarte Ekintza saila Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saila	
2.5 Foru egoitzen erabiltzaile diren mendeko pertsonentzako arreta hobetzea, pixkanaka bizikidetzaren unitateetan oinarritutako eredu bat ezarri	Foru-egoitzak modernizatzea eta pixkanaka antolatzea, gehienez 25 pertsonako bizikidetzaren unitateetan, zentro horietan bizi diren pertsonen arreta pertsonalizatzen aurrera egiteko modu gisa. Horretarako, Sestaon eta Abadiñon 2 egoitza berri eraikitze behar diren urratsak egingo dira, eta dagoeneko eredu hori jasoko dute. Era berean, lehendik dauden egoitzak pixkanaka birmoldatuko dira.	Gizarte Ekintza saila Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saila	
2.6 Mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako erreferentziako eskualde-zentroak	Erreferentziako eskualde-zentro berriak sortzea, GUFek (Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea) kudeatuta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin lankidetzan. Zentro horietan unitate soziosanitarioak eta laguntza-talde espezializatuak egongo dira, mendekotasun-egoeran dauden adinekoek beren eragin-eremuetan eta Bizkaiko egoitzen sarean dituzten beharrei erantzuteko. Zentroak Leioan eta Gernikan egongo dira, eta 50 plaza soziosanitario sortuko dira. Bizkaiko Iraupen Luzeko Zaintzen Trantsizio Planaren esparruan Birjinetxe (Bilbo) erreferentziako zentroa sortzearekin hasitako lanaren jarraipena dira.	Gizarte Ekintza saila	



BIZKAIA SOZIALKI AURRERATUA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
2.7 Getxoko Belaunaldien arteko Zentroa sortzea	Eraikuntza amaitzea eta Getxoko Belaunaldien arteko Zentroa martxan jartzea. Zentro berri horrek 100 egoitza-plaza izango ditu, adinekoentzako bizikidetza-unitateetan antolatuta, eta 40 zuzkidura-apartamentu gazteentzat. Zentroak esperientzia pilotu gisa balioko du belaunaldien arteko bizitegi-ikuspegiaren onurak ikertzeko. Ikuspegi horrek gazteen bizitza-luzeraren eta emantzipazioaren erronkei helduko die aldi berean, eta elkarri eragiten dioten eta beren bizi-proiektuak komunitateari irekita dagoen espazio komun batean garatzen dituzten adin desberdineko pertsonen bizikidetza bultzatuko du.	Gizarte Ekintza saila Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako saila	
2.8 Desgaitasunen bat duten pertsonen bizitza independenteko proiektuei laguntza handiagoa ematea	Bizkaiko desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia pertsonal handiena, gizarteratzea eta komunitatean parte-hartze aktiboa izan dezaten behar dituzten laguntza-zerbitzuak eskaintzea. Zerbitzu horiek Bizkaiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekin lankidetzan eta elkarlanean eskainiko dira.	Gizarte Ekintza saila	
2.9 Desgaitasuna duten pertsonentzako zentro berriak	Mundakan, Santurtzin eta Gallartan berriki eraldatutako eta abian jarritako zentroei Muxikan kokatutako beste zentro bat gehituko zaie, desgaitasuna duten pertsonentzako plazen kopurua handituz.	Gizarte Ekintza saila	
2.10 Bizkaiko hondartzetarako irisgarritasuna hobetzea	Bizkaia 20 hondartza ditu, jasangarritasun- eta irisgarritasun-irizpideen arabera kudeatzen direnak. Hareatzak babesteaz eta ingurumen-inpaktua minimizatzeaz gain, irisgarritasuna hobetzeko lan egingo da, bainu lagunduaren zerbitzua handituz. Zerbitzu horren helburua da mugikortasunean eta autonomia pertsonalean mugak dituzten pertsonen itsasoan bainatzeaz gozatu ahal izatea. Horretarako, zerbitzu hori Gornitzko eta Bakioko hondartzetan jarriko da, eta zerbitzua emateko epea luzatu egingo da, hondartza-denboraldiarekin berdinduz (ekainaren 1etik irailaren 30era). Gainera, BizkaiaUp aplikazioa hobetuko da, Bizkaiko herritarrek errazago eskuratu ahal izan dezaten hondartzaren egoerari, edukierari, banderari, giro-tenperaturari, uraren tenperaturari eta aparkalekuari buruzko informazio guztia.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila	



BIZKAIA SOZIALKI AURRERATUA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
2.11 45 urtetik gorako pertsonak, gazteak eta iraupen luzeko langabeak Bizkaiko produkzio-sarean sartzea	Kolektibo horiek, langabeziak bereziki eragindakoak, Bizkaiko produkzio-sarean sar daitezen erraztea, honako neurri hauen bidez: • Laguntza-ibilbideak abian jartzea. • Kolektibo horiek kontratatzeko pizgarrien programa bat garatzea. • Enplegu- eta prestakuntza-programa mistoak garatzea.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.12 Migratzaileei enplegurako laguntza ematea	Enpleguari laguntzeko programa bat abian jartzea migratzaileei zuzenduta, era guztietako gaitasunak eta trebetasunak (profesionalak, pertsonalak, teknologikoak, linguistikoak) eskuratu ahal izateko, Bizkaian laneratu ahal izan daitezen.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.13 EMAKUMEAK: emakumeen ahalduntzea eta gizarte-eredua eraldatzeko berdintasuna bermatzeko	Emakumeak ahalduntzeko eta gizarte-eredua eraldatzeko programa, berdintasuna bermatzeko	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.14 Eten digitala murrizteko trebakuntza digitala handitzea	Jarduera hori honako eremu hauetan ardaztuko da: • Bizkaiko kolektiboen beharrak eta eskaerak identifikatzea eta horiei erantzutea, erabiltzailearen esperientziaren ikuspegitik, eremu digitalean. • "Adiskidetasun Digitala" izeneko proiektuan sakontzea, Bizkaiko Adinekoen Kontseiluarekin eta Nagusiak Elkartarekin batera eta elkarlanean. Proiektu horren bidez, prestakuntza eta gaikuntza digitaleko jarduerak hedatzen dira gure adinekoengan eta dibertsitate funtzionala duten pertsonengan. • Zibersegurtasunaren kultura indartzea herritarrengan.	Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila	



BIZKAIA SOZIALKI AURRERATUA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
2.15 Sexu-indarkeriaren biktimentzako krisaldi eta suspertze integralerako zentroa	Sexu-indarkeriarako krisi- eta suspertze-zentro integrala abian jartzea. Ekintza hori osatzeko, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurkako herritar-itun bat ezarriko da. Aldi berean, Indarkeria Matxistaren Behatokiaren bidez, Bizkaian gertatzen diren mota horretako egoeren jarraipena egiten jarraituko da, abian jarritako politika eta baliabide instituzionalak ebaluatuz eta sentsibilizazio- eta prebentzio-programak sortuz.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.16 Pertsona kalteberenen arreta eta babesa	COTA 0 proiektua bultzatzea, gizarteratze-prozesurik garatu nahi ez duten edo zorroko zentro edo zerbitzuetan mantentzen ez diren gizarte-bazterketako muturreko egoeran dauden pertsonentzat.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.17 Babesik gabe eta/edo baztertuta dauden pertsonentzako sare pertsonalak eraikitzea eta berreraikitzea	Babesik gabe edo/eta baztertuta dauden pertsonen beren sare pertsonalak eraikitzen edo berreraikitzen laguntzeko programak garatzea.	Gizarte Ekintza saila	
2.18 Baliabideak eta programak babesgabetasun-egoeran dauden adingabeen beharretara egokitzea	Kasu bakoitzari erantzun egokiena emateko beharrezkoak diren babes-neurri guztiak gaitzea, familia-harrera sustatuz eta hazteko zailtasunak dituzten familientzako laguntza areagotuz, egoera berri eta emergenteetarako erantzunak espezializatuz, egoitza-baliabide berriak emanez eta esku-hartze goiztiarreko lan-ildo berriak bultzatuz. Era berean, abian jarriko dira haurren sexu-abusuaren biktima diren adingabeei arreta emateko eredu esperimentalak (Barnahus eredua).	Gizarte Ekintza saila	
2.19 Inoren kargura ez dauden adingabeen babesgabetasunaren prebentzioa	Udalekin eta beste sistema batzuekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea, hala nola hezkuntza- eta osasun-sistemekin, pertsona horien babesgabetasun-egoerak prebenitzeko, eta beste erakunde batzuekiko koordinazioa areagotzea, hala nola epailetzarekin, Fiskaltzarekin, Ertzaintzarekin eta, oro har, poliziekin, esku-hartze integralagoak eta inpaktu handiagoak egiteko.	Gizarte Ekintza saila	
2.20 Bizkaian nahi ez den bakardadearen arazoari heltzea	Bakardadeari arreta emateko estrategia bat egitea eta abian jartzea. Estrategia horrek Bizkaiko bakardadearen diagnostiko on bat egiteko balioko du, bizitzaren zikloaren etapa guztietan, eta zeharka lan egiteko aukera emango du, egoera horien konponbidean esku har dezaketen eragile guztien inplikazioarekin.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	



BIZKAIA SOZIALKI AURRERATUA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
2.21 Garapen komunitarioan oinarritutako politika publikoak bultzatzeko jarduerak-esparru bat definitzea	Datozen urteetan ekintza komunitarioari dagokionez, foru-ekintza bideratzea ahalbideratuko duen jarduerak-esparru bat lantzea eta abian jartzea.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.22 Bizkaiko aniztasuna sustatzea, aberastasuna eta aukerak ematen dituen ondare sozial gisa	Aniztasunean Elkarrekin Bizitzeko Foru Estrategia berria formulatzea eta abiaraztea. Estrategia horri esker, Bizkaian dauden aniztasunak kudeatu ahal izango dira foru mailan, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipiotik eta GJHein eta 2030 Agendarekin bat datorren eskubideen ikuspegitik heltzen zaiela bermatuz.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	
2.23 Gizartean garrantzi handiagoa izango duen Garapenerako Lankidetzak Politika bultzatzea, lurraldeko sektore eta eragileak inplikatzeko	2022-2030 aldirako Lankidetzarako IV. Gida Planaren esparruan, 2022-2024 aldian lortutako aurrerapenak ebaluatzea eta 2027ra arteko lanaren edukia gidatuko duten hurrengo urratsak bultzatzea, jarduerak-ildo berriak eta horiek GJHein lerrokatzea barne.	Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna sustatzeko saila	  
2.24 Iruzur sozialaren aurkako borroka	Ikuskaritza- eta kontrol-lanarekin jarraitzea, baliabide publikoen erabilera egokia bermatzeko eta urtero Bizkaian gizarte-zerbitzuren bat erabiltzen duten pertsonak behar bezala babesteko.	Gizarte Ekintza saila	  
2.25 Udalekuak-en programa zabaltzea	Udalekuak-en programa zabaltzea, Bizkaiko haurrek jarduerak ludiko-hezitzaileetan parte hartu ahal izan dezaten. Programa honen helburua da errespetuaren eta bizikidetzaren balioak garatzea; aisialdi hezitzailea bultzatzea; haurrak ingurune naturalera hurbiltzea; aisialdiko jardueretan euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzea sustatzea; eskualde bakoitzeko ohiturak eta baliabide kulturalak ezagutaraztea; eguneroko bizikidetzan laguntasuna eta elkartasuna bultzatzea; eta berdintasunean hezteak.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	    
2.26 Bizkaiko kirol-azpiegiturak hobetzea	Bizkaiko kirol-azpiegiturak hobetzea, lurraldeko udalerri, federazio eta klubekin lankidetzan. Egungo kirol-azpiegituren funtzionamendu egokia, mantentzea eta eguneratzea bultzatuko da, behar eta eskakizun tekniko berrietara egokituz. Zehazki, patinajearekin, txirrindularitzarekin, eskalarekin eta atletismoarekin lotutako instalazioak hobetzeko lan egingo da.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	  



BIZKAIA BERDEA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
3.1 Jasangarritasun energetikoa	Foru Aldundiaren 2023-2030 Energia Jarduketarako Plan Orokorra gauzatzea. Planak foru eraikinetako energia berriztagarrietarako inbertsioak, foru ibilgailuen parkeko flotaren % 32 ordezkatzeko eta aire zabaleko zein tuneletako argiteria publikoa eguneratzea jasoko ditu, LED teknologiko argiak gehituz. Era berean, laguntza-programa bat jarriko da abian, Bizkaiko udalerrietan energia-eraginkortasuna hobetzen duten jarduerak babesteko.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako saila Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako saila	
3.2 Klima-alaketaren aurkako borroka	Klima-alaketari buruzko diagnostikoaren jarraipena egitea, lurraldeak arlo horretan duen egoeraren ikuspegi eguneratua lortzeko. Diagnostiko berri horretatik abiatuta, beste eragile eta erakunde batzuekiko koordinazioa indartuko da, klima-alaketaren eta trantsizio energetikoaren erronkei batera heltzeko, eta herritarrak erantzukidetasunean inplikatu dira, helburu klimatikoak lortzeko, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintzen bidez.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	
3.3 Espezieen kontserbazioa eta ehiza-kontrola	Bizkaiko Fauna Basatia Berreskuratze Zentroaren instalazioak berritzea, espezieen harrera handitzeko eta natura-ingurunean birgaitu eta berriz integartzeko. Era berean, katalogatutako fauna- eta flora-espezieen kontserbazioan lan egingo da, bai eta basa-espezieen populazioaren kontrolean ere, ingurumenaren eta ekonomiaren ikuspegitik populazio jasangarria lortzeko, osasun-kalteak eta -arriskuak minimizatuz.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	
3.4 Espazio degradatuen ingurumena berreskuratzea	Bizkaiko udalei eta mankomunitateei zuzendutako laguntza-programa bat abian jartzea, degradatutako espazioen ingurumena leheneratzeko, hala nola, zabortegei zaharrak, lurzoru kutsatuak... Helburua da naturaguneak berreskuratzea herritarrentzat, Bizkaia berdeagoa lortzen lagunduz. Era berean, ekonomia zirkularreko industria-jardueren eta energia fotovoltaikoko instalazioen garapena bultzatuko da zabortegetan eta gaur egun hondakinak kudeatzeko erabiltzen diren beste espazio batzuetan, horien aprobetxamendu handiagoa lortzeko. Halaber, ahal den tratamendu-guneetan aisialdi-eremuak sortzeko aukera aztertuko da.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	



BIZKAIA BERDEA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
3.5 Gaztelugatxeko Donieneko kudeaketarako erakundeen arteko koordinazioa	Gaztelugatxeko Donieneko kudeaketarako erakundeen arteko koordinazioa	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	
3.6 Baso-kudeaketa iraunkorra	Jarduera hori honela gauzatuko da: • Aldundiak mendiak erostea, espezie autoktonoekin birpopulatzeko. • Baso-kudeaketa jasangarria bermatzeko neurriak bultzatzea, Basogintzako Laguntza Planaren bidez. • Bizkaiko baso-politiken onurei buruzko sentsibilizazio- eta ezagutza-transferentzia-ekintzak. • Baso-suteetarako Larrialdi Plana (INFOBI) garatzea, baso-suteen zaintza, prebentzioa eta itzalketa indartzeko.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	
3.7 Mendiei buruzko Foru Arau berria	Basoen kudeaketa iraunkorraren egoera, behar eta erronka berrietara egokituko den Mendiei buruzko Foru Araua egitea.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	
3.8 Biometanizazio-instalazioa	Biometanizazio-planta bat eraikitze eta abian jartzeko lanak hastea, Bizkaian sortzen den hondakin organikotik biogasa eta konposta lortzeko. Proiektu horren bidez, Bizkaian 8.760 etxe/urteko edo ia 3.000 ibilgailu/urteko kontsumo termikoaren baliokidea den energia-ekarpena lortuko da, urtean 5.600 tona CO ₂ baino gehiago isurtzea saihestez gain.	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	



BIZKAIA BERDEA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
3.9 Erregai solidoa berreskuratzea	Erregai solido berreskuragarriko (CSR) materiala tratatzeko proiektu bat garatzea, zeinaren helburu nagusia zabortegian uztea baita, TMBko instalazioko (tratamendu mekaniko-biologikoa) bigarren mailako hondakin horren balorizazio materiala ahalbidetzen duen tenperatura baxuko pirolisi-teknologia aplikatuz. Horri esker, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prestaketa-tasa ehuneko 12 puntu igoko da gutxi gorabehera, eta, ondorioz, Europak 2030erako arlo horretan ezarritako helburuak gaindituko dira (tokiko eskumeneko hondakinen % 60).	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	    
3.10 Waste Lab Bizkaiaren sorrera	Waste Lab diseinatu eta abian jartzea. Ezagutza- eta berrikuntza-zentro bat da, fisikoa zein birtuala, eta Bizkaiko hondakinak kudeatzeko sisteman esku hartzen duten eragileak bilduko ditu. Operadoreek eta kudeatzaileek, udalerriek eta mankomunitateek eta herritarrek, oro har, hainbat ekimen gauzatzeko aukera izango dute, hala nola ekonomia zirkularreko ideia berritzaileak elkarrekin sortzeko, informazioa biltzeko eta ustiatzeko aktibo digitalak garatzeko, edo nazioarteko kasu arrakastatsuak aztertzeko	Ingurune Naturala eta Nekazaritza sustatzeko saila	   
3.11 Bizkaiko ETEen trantsizio energetiko eta ekologikorako laguntza	Trantsizio energetikorako eta deskarbonizaziorako estrategia bat diseinatzea eta abian jartzea Bizkaiko enpresa txiki eta ertainentzat. Estrategia horrek izaera integrala izango du, eta sentsibilizazio-, aholkularitza- eta prestakuntza-jarduerak barne hartuko ditu, Bizkaiko enpresa txiki eta ertainei modu jasangarrian hazten, karbono-aztarna neurtzen eta haien jarduera deskarbonizatzen laguntzeko, ekonomia zirkularreko, energia garbiak erabiltzeko eta ekipamenduak modernizatzeko proiektu zehatzen bidez.	Ekonomia Sustatzeko saila	     



BIZKAIA BERDEA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
3.12 Bizikletaren erabilera sustatzea eta erraztea	Jarduera honen helburua da bizikleta gehiago erabiltzea Bizkaia iraunkorragoa lortzeko. Jarduera hauetan zehaztu da: - BiziPark Bizkaiko udalerrietan hedatzea. BiziPark bizikletentzako aparkaleku seguruak sortzea Bizkaiko Lurralde Historikoan. Horretarako, dirulaguntza hitzarmenak sinatuko dira udalekin, BiziPark aparkaleku berriak egokitu eta hornitzeko. - Bizikleta elektrikoak alokatzeko Bizkaibizi zerbitzua Bizkaiko beste udalerri batzuetara zabaltzea. Berangoko, Bilboko, Erandioko, Getxoko, Portugaleteko, Santurtziko eta Sestaoko udaletan alokairuko zerbitzu publiko hau martxan jarri ondoren, zerbitzua zabaltu egingo da udalerri berriak sartuz. - Herritarren artean bizikleta elektrikoaren erabilera bultzatzea, bizikleta horiek erosteko dirulaguntzen bidez.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	  
3.13 Bizkaiko Bide Berdeak	Motorizatu gabeko bide berdeen sare bat garatzea, mugikortasun jasangarria bultzatzeko, ohitura osasungarrien eta gure ondare naturala zaintzearen parametroen arabera. Era berean, Bide Berdeen Lurraldearen Arloko Plana egingo da, eta udalei eta mankomunitateei sare hori mantentzeko eta sustatzeko laguntza-programa bat jarriko da abian.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	  
3.14 BiziPuntuen sarea etengabe hobetzea eta mantentzea	Azken urteotan Bizkaiko udalerrietan 110 BiziPuntu (bizikletak konpontzeko eta mantentzeko estazioak) hedatu eta abian jarri ondoren, instalazio horiek beti erabiltzeko baldintza egokietan egon daitezen lan egingo da, bai eta behar denean berritu eta eguneratzeko ere.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	  
3.15 Aparkabisako instalazioen elektrifikazioa	Aparkabisako (Bizkaiko Garraio Zentroa) instalazioen elektrifikazioa, Bizkaibuseko ibilgailu-flotak pixkanaka ibilgailu elektriko gehiago izan ditzan, azken helburua hiriarteko garraio publikoa lortzea izanik, ibilgailu garbietan eta zero emisiokoetan oinarrituta.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	  



BIZKAIA BERDEA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
3.16 Bizkaibuseko flotaren elektrifikazioa	Bizkaiko Foru Aldundiaren helburu estrategikoetako bat garraio publiko iraunkor eta digitalizatu baterantz aurrera egitea da.	Garraioak, Mugikortasuna eta Turismoa sustatzeko saila	  
3.17 Energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarriak bide-sarean	Bide-sarearen eraginkortasun energetikoa hobetzea, tuneletako eta errepideetako argiak LED argiekin ordezkatzuz, bide-sarearen kontsumo elektrikoa milioi bat kWh-tan murriztuz. Era berean, bide-sarean energia berriztagarrien instalazio berriak integratzeko lan egingo da, hala nola plaka fotovoltaikoak La Avanzadan eta Trafikoa Kontrolatzeko eta Kudeatzeko Zentroetan.	Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saila	  
3.18 Ekonomia zirkularra sustatzea bide-sarean	Errepideetako obretan materialen berrerabilera areagotzea eta foru-errepideetako ur-ekarpen eta isurketen kudeaketa iraunkorrean teknologiak txertatzea.	Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako saila	 



BEREZKO NORTASUNA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
4.1 Euskal Museoa, euskal kultura munduan sartzeko atea	Euskal Museoa handitzeko lanak amaitzea. Museoaren instalazioak 2.000 m ² -tan handitzeaz gain, diskurtso museografiko berri bat sortuko da, Euskal Museoa euskal kulturaren erreferente gisa sendotzeko eta euskal kultura mundura sartzeko ate bihurtzeko.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	 
4.2 Arte Ederren Museoa handitzeko lanen amaiera	Bilboko Arte Ederren Museoaren zabalkuntza burutzea, 6.700 metro karratu baino gehiagoko hedapen fisikoarekin, eta lehendik zeuden 8.000 metro karratuko birmoldaketarekin. Aldi berean, instalazioen jasagarritasuna bultzatuko da, eraginkortasun energetiko handiagoa lortuz. Horrekin guztiarekin museoa erakargarriagoa eta funtzionalagoa bihurtu nahi da.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	   
4.3 Bizkaiko industria- eta kultura-ondarea berreskuratzea	Bizkaiko Industria Ondarea Berreskuratze Plan Integrala egitea eta ezartzea. Plan horretan, besteak beste, Ubideak transmedia plataforma eta La Encartada Fabrika-museoaren proiektu integrala inplementatuko dira, berrikuntza-gune eta industria-ondarea Europan balioesteko jardunbide egokien erreferentzia-zentro gisa.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	  
4.4 Talentu artistikoari eta kultura-eragileei laguntzea	Bizkaiko talentu artistikoari eta kultura-eragileei ematen zaien laguntza indartzea, prestakuntza, aholkularitza eta orientazioko laguntzen, beken eta programen bidez. Besteak beste, neurri hauek jarriko dira martxan: • Laguntza-lerroak handitzea. • Aholkularitza- eta orientazio-programak. • Beka programak. • Kulturako profesionalen kualifikazio teknikoa hobetzeko prestakuntza-planak. • Kultura-eragileekin batera, kultura-garapenerako gogoetarako eta lankidetzarako guneak eta foroak sustatzea eta horietan parte hartzea. • Kulturaren ekoizpena eta kontsumoa sustatzeko jarduerak.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	    



BEREZKO NORTASUNA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
4.5 Kobazulo Experience	Kobazulo Experience proiektua garatzea Lea Artibain. Bizkaia lurralde aberatsa da labar-artean, eta historiaurreko artearen ondare-bilduma zabala gordetzen duten kobazulo ugari aurkitu dira bertan. Kobazulo Experience-ren bitartez, Bizkaia duen labar-artearen ondare garrantzitsuari balioa emango zaio, bere sekretu guztiak ezagutzeko aukera emango duen espazio bat sortuz, ikuspegi ludikoa eta zientifikoa uztartuz.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	
4.6 Omako basoa behin betiko irekitzea	Behin lekualdaketa amaituta, Omako Basoa Agustin Ibarrolaren jatorrizko ideari leial zaion proposamen gisa aurkeztuko zaie herritarrei. Proposamen oso bat, obraren interpretazio azkar eta erraza ahalbidetuko duena, hura zabaltzeko eta ulertzeko eduki eta material berritzaile berriekin, eta basoa kudeatzeko eta mantentzeko jasangarritasunean oinarritutako eredu berri batekin.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	
4.7 Santimamiñe zabaltzeko proiektua berritzea	Santimamiñe zabaltzeko proiektua berritzea, ezagutza, dibertsioa, berrikuntza eta jasangarritasuna uztartuko dituen esperientzia berri baten bidez.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	
4.8 Bizkaia Dantzan: Bizkaiko dantzari lotutako talentuari laguntzea	Dantzarekin lotutako tokiko talentua, Bizkaia Dantzan, indartzea, prestakuntza-beken, lurraldean zehar jira daitezkeen formatu askotako proiektu eszenikoen eta euskal dantzak hobeto ezagutzeko ekintzen bidez. Halaber, Bizkaian dantza konpainia bat sortzeko aukera aztertuko dugu.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	



BEREZKO NORTASUNA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
4.9 Musiktoka: folk musikaren bultzada	Musiktoka ekimena elkarrekin sortu eta martxan jartzean datza emanaldia Artean, euskal folk musika tradizionalaren inguruan berritutako gunea. Arteako Ekomuseoa berrituko da, Musiktoka deituko dena. Musika-ondare biziaren esperientzia, gure kulturaren errotutako musikaren balio hezitzaile eta dibulgatzaileekin. Musiktopak 7 espazio bereizi izango ditu: parke eskultoriko bat soinu-artearen instalazioarekin, harrera eta zerbitzuetarako gunea bat, kontzeptu irekiko erakusketarako barne-espazio bat, baserriko lan tradizionalak gogora ekarriko dituzten pieza antropologikoak eta soinu-edukiontzia hartuko dituen espazio bat, burdinolaren inguruko argizko instalazio artistiko bat izango den zuhaitzi bat, edukiera txikiko musika-emanaldiak edo hezkuntza-tailerrak hartzeko eraikin osagarri bat, eta Arratiako Musika Eskolarako hainbat estudio- eta entsegu-gela.	Euskara, Kultura eta Kirol saila Ekonomia Sustatzeko saila	
4.10 Itsas kulturaren eta itsasoari lotutako lanbideen balioa nabarmentzea: Ortube arrantza-ontzia eta Mendieta ontziola	Lekeitioko Mendieta ontziolaren eta Bermeoko Ortube arrantza-ontziaren itsas ondarea berreskuratzeko proiektuak amaitzea, itsas kultura eta itsasoari lotutako lanbideak kontserbatzeko, berreskuratzeko eta zabaltzeko. Mendieta ontziolen proiektua martxan jartzeak ontzigintzaren eta erriberako arotzeriaren inguruko proposamenak garatuko dituen espazio berri bat izatea ekarriko du. Era berean, Ortube arrantza-ontziaren berreskurapenarekin esperientzia paregabeaz gozatu ahal izango da, bisitariei Bizkaiko kostaldean aspalditik garatu den arrantza-arte tradizionalaren errealitatea gerturatzeko.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	
4.11 La Guata zentro artistikoa bultzatzea	La Guata proiektua bultzatzea, Zallako ekoizpen artistikoko fabrika. Fabrika zaharrean sortutako proiektua garatzea. Bertan, arte-ekoizpenerako makineria izango duen tailer bat, tailerrean proposamenak abian jarri aurreko probak egin ahal izango dituzten artisten laborategia eta jardueretan, hitzaldietan eta beren lanak bateratzen artistek elkarreragina izan dezaten lagunduko duten espazioak egongo dira.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	



BEREZKO NORTASUNA DUEN BIZKAIA			
JARDUERA	JARDUERAREN DESKRIBAPENA	SAIL ARDURADUNA	GJH
4.12 Foru-kudeaketan eta -arretan euskararen erabilera sustatzea	Jarduera horren helburua da dauden ekimenak sendotzea eta programa eta tresna berriak sortzea, foru-jardueraren eremu guztietan euskararen erabilera aktibatzeke eta errazteko, Aldundiarekin euskaraz jardun nahi duten pertsonen eskubideak babesteko. Horretarako, honako ildo hauek landuko dira: • Foru Aldundian Euskararen Erabilera Normalizatzeko VII. Plana diseinatu eta abian jartzea, foru langileen inplikazioarekin.. • Foru langileen artean euskararen erabilera aktibatzeke Eramiak ekimena sendotzea eta zabaltzea. • Idazkide bezalako tresnen erabilera bultzatzea, foru-jardueraren eremu guztietan euskararen erabilera errazteko. • Hizkuntza-plangintza eta -normalizazioa bultzatzea foru-sektore publikoan (enpresak eta foru-erakundeak). Gainera, Bizkaiko udalei udal-eremuan euskararen erabilera sustatzen lagunduko zaie.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	
4.13 Euskarazko kultur sorkuntza bultzatzea	Loraldia programa bultzatzen jarraituko da, euskarazko kultur sorkuntza ikusarazteko eta prestigioa emateko eta beren lana euskaraz edo nagusiki euskaraz egiten duten sortzaileak identifikatzeko eta ezagutarazteko. Programaren bidez, halaber, gazteen interesei eta kontsumo-moduei erantzungo dien euskarazko eskaintza egokitu nahi da, eta euskarazko kultura-sorkuntza garaikideari balioa emango dioten jaialdiak eta ekimenak sustatu, bai eta lurraldeko hainbat erakundek, batez ere hiriguneetan, euskaraz garatzen ari diren kultura-transmisioko ekimenak bultzatu ere. Era berean, laguntza ekonomikoak emango dira euskarazko kultur sorkuntza zabaltzeko.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	
4.14 Euskararen Interpretazio Zentroa (EIZ)	Euskararen Interpretazio Zentroa indartzea, Europako gainerako hizkuntza minorizatu eta gutxituentzat erreferente izan dadin.	Euskara, Kultura eta Kirol saila	



